

**SALGAIK GARRAIATZEKO IBILGAILUEN
GURPILAK ALDATZEKO GAITASUN
NAHIKOA DUTEN TAILERRAK
INSKRIBATZEKO PROZEDURA**

**PROCEDIMIENTO DE INSCRIPCIÓN DE
TALLERES CON CAPACIDAD SUFICIENTE
PARA SUSTITUIR LAS RUEDAS DE
VEHÍCULOS DE TRANSPORTE DE
MERCANCÍAS**

Inskripzioaren objektua

Baimendutako gehieneko masa 3,5 tonatik gorakoa duten salgaiak garraiatzeko ibilgailuen gurpilak aldatzeko gaitasun nahikoa duten tailerrak inskribatzeko prozedura bat zehaztea, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak garatzen dituen programetan lankidetzan aritzeko.

Objeto de la inscripción

Inscripción de talleres con capacidad suficiente para sustituir las ruedas de vehículos de transporte de mercancías que superen las 3,5 toneladas de masa máxima autorizada, para la colaboración en los programas que desarrolle el Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos.

Inskripzioaren efektuak

Inskripzioari esker, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak sustatutako laguntza programen bidez kofinantzatu ahal izango dira hura lortzen duten tailerrek garatutako zerbitzuak.

Efectos de la inscripción

La inscripción permitirá que los servicios desarrollados por los talleres que la obtengan puedan ser cofinanciados a través de los programas de ayudas promovidos por el Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos que así lo contemplen.

Entitate eskatzaileak

Gipuzkoan egoitza duten eta zerbitzua emateko behar diren instalazioak dituzten tailerrek inskribatzeko eskaera aurkeztu ahal izango dute.

Entidades solicitantes

Podrán solicitar su inscripción los talleres que tengan su domicilio en Gipuzkoa y dispongan de las instalaciones necesarias para prestar el servicio.

Eskaerak aurkezteko modua

Eskaera eta erantsitako agiriak Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistro elektronikoaren bidez baino ez dira aurkeztuko (<https://www.gfaegoitza.eus>).

Forma de presentación de solicitudes

La solicitud y la documentación que se adjunte se presentará únicamente a través del registro electrónico de la Diputación Foral de Gipuzkoa (<https://www.gfaegoitza.eus>).

Dokumentazioa

Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Eskabidea behar bezala beteta.
- Eskatutako baldintzak eta hartutako konpromisoak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

Documentación

La documentación a presentar será la siguiente:

- Solicitud debidamente cumplimentada.
- Declaración responsable del cumplimiento de las condiciones requeridas y de los compromisos adquiridos.



Aurkeztu beharreko ereduak Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren webgunean egongo dira eskuragarri:

www.gipuzkoa.eus/eus/web/ekonomia

Los modelos a presentar estarán disponibles en la página web del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos:

www.gipuzkoa.eus/es/web/ekonomia

Inskripzioa lortzen duten tailerren konpromisoak

inskrizioa lortzen duten tailerrek honako hauek egin beharko dituzte:

- Dagokion laguntza deialdian zerbitzua eskaintzeko jarraitu beharreko prozedurari buruzko informazioa ematea. Informazio hori Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak emango dio tailerrari.
- Eskaintzan, eskaeran eta fakturan jasotako testuak Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak zehaztutako jarraibideetara egokitzea.
- Tailerrak eskaeran jasotzen dituen epeak betetzeko konpromisoa hartuko du.
- Tailerra izango da emandako zerbitzuaren arduradun bakarra, eta Gipuzkoako Foru Aldundia ez da inola ere gaizki gauzatzearen erantzule izango, eta ez dio inolako erreklamaziorik egingo.
- Laguntzen onuradunei eskaintako zerbitzuen erregistro bat eramatea
- Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko teknikariek edozein unetan egin ditzaketen egiaztapen eta gainbegiratze jardueretan parte hartzeko konpromisoa hartzea, eta eskatzen zaien informazio guztia ematea.

Compromisos de los talleres inscritos

Los talleres que se inscriban deberán:

- Proporcionar información en relación con el procedimiento a seguir para prestar el servicio a la convocatoria de ayudas correspondiente. Esta información será facilitada por el Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos al taller.
- Ajustar los textos recogidos en la oferta, el pedido y la factura a las directrices definidas por el Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos.
- El taller se comprometerá a cumplir los plazos que recojan en el pedido.
- El taller será el único responsable del servicio prestado, no haciéndose la Diputación Foral de Gipuzkoa en ningún caso responsable de una mala ejecución y debiendo mantenerle indemne de cualquier reclamación en relación con el mismo.
- Llevar un registro de los servicios realizados a los beneficiarios de las ayudas.
- Comprometerse a participar en las actuaciones de comprobación y supervisión que, en cualquier momento, pueda realizar el personal técnico responsable del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos, facilitando la información que se solicite.

- Inskripzioa lortzeko kontuan hartutako baldintzei eta/edo zerbitzuaren prestazioari eragin diezaiokeen edozein aldaketaren berri ematea Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari, gehienez 30 eguneko epean.
- Comunicar al Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos cualquier modificación, en un plazo no superior a 30 días, relativa a las condiciones tenidas en cuenta para la obtención de la inscripción y/o que pueda afectar a la prestación del servicio.

Inskribatutako tailerrek ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, inskripzioa bertan behera utziko da, eta, hala badagokio, legezko erantzukizunak eskatuko dira.

En caso de incumplimiento de cualquiera de los requisitos establecidos por parte de los talleres que se hayan inscrito, dará lugar a la cancelación de la misma y si procede a la exigencia de responsabilidades legales.

Ezeztatzeko arrazoiak

Nolanahi ere, inskripzioa ezerezteko arrazoiak honako hauek izango dira:

- Zerbitzuak ematen dituen pertsonak eta erakundeak ez betetzea inskripzioa ahalbidetu zuten baldintzak.
- Zerbitzua ezarritako epeen, irizpideen eta prozeduren arabera ez ematea.
- Erakundeak inskripzioak dakartzan betebeharrak ez betetzea.
- Zerbitzuak hirugarrenei azpikontratatzeari.
- Erakundeak aurkeztutako dokumentazioaren edukia faltsua izatea.

Causas de cancelación

En cualquier caso, darán lugar a la cancelación de la inscripción las siguientes causas:

- Que la persona y entidad prestataria de servicios no cumplan las condiciones que permitieron su inscripción.
- Que la prestación del servicio no se realice de acuerdo a los plazos, criterios y procedimientos establecidos.
- Que la entidad no cumpla con las obligaciones que conlleva la inscripción.
- Que se subcontrate los servicios a terceros.
- Que el contenido de la documentación presentada por la entidad incurra en falsedades.

Inskribatzeko epea

Epea deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2025eko irailaren 30ean amaitu.

Eskaera ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea 2 hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko azken egunaren hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Gehieneko epea igaro eta ebazpen espresurik jakinarazi ez bada, entitate

Plazo de inscripción

El plazo se iniciará al día siguiente de la publicación de la presente convocatoria y finalizará el 30 de septiembre de 2025.

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución será de 2 meses, a contar desde del día siguiente del plazo límite para la presentación de solicitudes.

El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado resolución expresa, legitima a la



interesdunak eskabidea administrazio-
isiltasunez ezetsi dela ulertu ahal izango du.

entidad interesada para entender
desestimada su solicitud.

Inskripzioaren iraupena

Inskripzioak bi urteko iraupena izango du,
beraz, hirugarren urtean berritu egin beharko
da.

Duración de la inscripción

La inscripción tendrá una validez de dos años,
por lo que en el transcurso del tercer año
deberá renovarse.

Informazioa

Informazioa eskatzeko hurrengo helbide
elektronikora idatzi daiteke edo hurrengo
telefono zenbakira deitu daiteke:

Información

Para solicitar información se puede escribir a
la siguiente dirección electrónica o llamar al
siguiente teléfono:

Helbide elektronikoa: gurpilak@gipuzkoa.eus

Dirección electrónica: gurpilak@gipuzkoa.eus

Telefonoa: 943112275

Teléfono: 943112275